

Martin Ugaldere heriotza

V.J. Los Arcos Ayape eta Mikel Las Heras
(Euskal Herriko Lagunen Venezuelako Elkarte)

Berria, 2004-10-08: 7.

Euskal Herriko Lagunen Venezuelako Elkarteak Martin Ugaldere heriotzak atsekabetu dituen senitarteko, lagun eta Euskal Herriarekin bat egiten du. Martin Ugalde, euskal venezuelarra eta euskal herritar unibertsala zen, euskara modernoaren gurtzailea, euskal kulturaren defendatzailea eta azken egunera arte, printzipio eta ideien jazarpena bizi izan zuen, baina beldurtu ez zen eta amore eman ez zuen gizon konprometitua zen.

Martin Ugaldek atzerriratu gisa lehen urteak Venezuelan igaro zituen eta guregan, euskal venezuelarren, oraindik dirauen arrasto sakon bat utzi zuen. Beste hainbatekin batera, Euskal Herriaren balio eta printzipio politiko-kulturalak gauzatu dituen fundatzailea eta komunitate baten parte izan zen, eguneroko politikak gure herriei ezartzen dizkien zikoizkerien gaitetik.

Bizitzatik, Euskal Herritik eta Venezuelatik Martin Ugaldere igarotzea ez da alferrikakoa izan. Gure herrietan eskuzabaltasunez jaurtitako fruitu eta haziek loratuko dute eta bere mezua, bere askatasun oihua eta hil nahi ez duen kulturaren defentsa erakutsiko digute guri eta mundu osoari.